



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailak 15

Vitoria-Gasteiz, 15 de febrero de 2022

Lehendakaritza

2030 AGENDAREN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBUEN DIBULGAZIO SOZIALA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

- **2030 Agenda Bonuen Programaren 2022rako deialdia 500.000 eurokoa izango da, eta euskal elkarteetan sareko erakundeei uzenduta dago**
- **Eskala txikiko jarduerak sustatzeko aukera eskaintzen die eremu sektorialeko edo eskualde-, herri- eta auzo-mailako elkartei**
- **Helburua da dibulgazioko, hezkuntzako, prestakuntzako edo herritarren partaidetzako ekimenak ugaritzen laguntzea**
- **Helburu berarekin, une honetan, 2030 Agendari buruzko dibulgaziozko prestakuntza-programa zabala prestatzen ari da udaberri honetarako**

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren Legegintzaldiko lan-plangintza da, Garapen Jasangarrirako Helburuak sustatzeari dagokionez.

Programa horren diagnostikoan, gizarteak 2030 Agenda zer den eta zer ordezkatzeko duen ez dakiela egiaztatzen da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Legegintzaldi honetarako planaren lau ardatzetako lehenengoa 2030 Agenda zabaltzea da. Hona hemen jarduera-ardatz horren helburuak:

-2030 Agendaren esanahiari, proiektioari eta garrantziari buruzko gizartearen ezagutza handiagoa lortzea;

-Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez, elkarrizketarako, partaidetzarako eta gizarte-inplikaziorako bideak eskaintzea;

-giza garapenerako eta garapen iraunkorreko pedagogia garatzera bideratutako hezkuntza-tresnak eta -ekimenak indartzea, bai eta Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozialaren printzipioak eta balioak garatzera bideratutakoak ere;

-eta erakundeen, sektoreen edo erakundeen jardun-eremu guztietan Garapen Jasangarrirako Helburuak ezartzeko prestakuntza-tresnak laguntzea.

Esparru horretan, aurreikusitako jardueretako bat 2030 Agenda Bonuen diru-laguntzen programa abiaraztea da, 500.000 euroko zenbatekoarekin. Gaur onartu da Gobernu Kontseiluan laguntza horiek arautzen dituen Dekretua. Deialdiari buruzko ebazpena datozen asteetan onartuko da, eta, argitaratzen denetik aurrera, hilabeteko epea zabalduko da eskabideak aurkezteko.

Diru-laguntzen deialdi hau, zehazki, 2030 Agenda gizartean zabaltzeko eta ezagutzeko ekintzak sustatzera bideratuta dago, bai eta herritarrek Agendaren edukiaren inguruan partehartze-ekimenak sustatzera ere, euskal elkarte-sareko erakundeei lagunduz ekintza horiek dinamizatzen.

Programaren helburua da dibulgazioko, hezkuntzako, prestakuntzako edo herritarren partaidetzako ekimenak ugaritzea, udal-eremukoak edo sektorialak, elkarteei eskala txikiko jarduerak sustatzeko aukera eskainiz, eskualde-, herri- edo auzo-eremuan ekimenak gara ditzaten.

Helburu horrekin, diru-laguntza horiek gehienez 5.000 euroko zenbatekoa izango dute ekimen bakoitzeko, eta 25.000 eurokoa gehienez, erakunde berak bultzatutako ekimenen baturagatik. Azken batean, 2030 Agenda Bonuen Programak eragin biderkatzailea bilatzen du Garapen Jasangarrirako Helburuen hedapenean, ezagutzan eta atxikimenduan, eta zeharkako lankidetzak lortu nahi du horiek sustatzeko konpromisoan.

Horrez gain, eta dibulgazio-helburu berarekin, Idazkaritza Nagusi honek prestakuntza-programa bat diseinatu du 2022rako, hiru ildo dituen: (1) prestatzaileentzako prestakuntza-ikastaroak, 10 ordukoak; (2) dibulgazio-prestakuntzako ikastaroak, 7 ordukoak; eta (3) prestakuntza-ikastaro sektorialak, ordutegi-formatu desberdinekin, beharren arabera. Programa honen lehen edizioa udaberri honetan jarriko da martxan.

Prestakuntza-programa honen bidez, entitateen eta pertsonen eskura jarriko dira 2030 Agendari buruzko dibulgazio-prestakuntzako ikastaroak. Ikastaroaren helburua izango da informazio argia eta sintetikoa ematea, eta, Agendaren ulermen teorikora ez ezik, bereziki, haren gauzatze praktikora ere bideratuta.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2022KO ESTADISTIKA EGITARAUA ONARTU DU: 210 JARDUERA ETA 21 MILIOI EUROKO KOSTUA IZANGO DITU

Gobernu Kontseiluak gaurko (asteartea) bileran Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Urteko Estadistika Egitaraua baimentzen duen dekretua onartu du. Bertan 210 estadistika-eragiketa planteatzen dira, aurreko urtean baino bat gutxiago, 21 milioi euroko kostuarekin.

Programa honetan sartzen dira Euskal Estadistika Erakundeak (Eustatek eta Eusko Jaurlaritzako sailtetako estadistika organoek osatuak) aurten egingo dituen estadistika-lan eta -jarduera guztiak. Horrela, gaur egun indarrean dagoen 2019-2022 aldirako Euskal Estadistika Planean aurreikusitako jarduerak garatuko dira; plan hori lege bidez onartu zen Eusko Legebiltzarrean 2019ko ekainean.

Estadistika ofiziala ezinbestekoa da errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko, are gehiago krisi-une hauetan. Haren bitartez lortzen diren emaitzak funtsezkoak dira, zuzenean eragiten baitute erabakiak hartzean, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

2022ko programaren kostu osoa 21 milioi eurokoa da, eta Eustatek du gasturik handiena, kostu osoaren % 74, alegia; ondoren daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 6,6) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (% 4,8).

Aurreikusitako 210 estadistika-eragiketetatik, Eustat da 114ren arduraduna, eta gainerakoak (96) honela banatzen dira, sail bakoitzaren arabera:

- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena: 31 eragiketa
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak: 13 eragiketa
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak: 10 eragiketa
- Kultura eta Hizkuntza Politika: 9 eragiketa
- Osasuna: 8 eragiketa
- Lana eta Enplegua: 6 eragiketa
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 6 eragiketa
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 5 eragiketa
- Ekonomia eta Ogasuna: 4 eragiketa
- Segurtasuna: 4 eragiketa

Hiru foru-aldundiak ere agertzen dira parte-hartzaile gisa.

Gaikako arloen arabera, kostu handiena duena da “Demografia eta gizarte-ohiturak” (2022ko programaren % 13,2), ondoren “Estadistika-azpiegitura” (% 11,8) eta “Kontu Ekonomikoak” (% 11,3).

Hedapenari dagokionez, 170 estatistika-eragiketa egiturazkoak dira –urtean behineko edo gehiagoko maiztasuna dutenak, eta horietatik 95 urtean behin egiten dira-, 25 koiunturalak dira –urtean behin baino gutxiagotan hedatzen direnak– eta 15 noizbehinkakoak edo irregularrak dira.

Era berean, nabarmendu behar da 70 estatistika-eragiketatan **informazio administratiboa edo fiskala ere erabiltzen dela datu-iturri** gisa, eta beste 50 eragiketatan informazio osagarria edo mistoa erabiltzen da iturri gisa.

Ekonomia eta Ogasuna

**EUSKO JAURLARITZAK ONARTU DU 10M€ IGOTZEA
JASANGARRITASUN ENERGETIKOKO PROIEKTUETARAKO FEIren
ETORKIZUNEKO KONPROMISOAK**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2025eko urtealdian 10 milioi euro igotzea Finantzen Euskal Institutuaren (FEI) etorkizuneko konpromisoak, jasangarritasun energetikoko proiektuetarako maileguak emateko. Ondorioz, erakunde publikoaren aurrekontua aldatu egingo da baldintza horietan.

Gaur egun FEIk 90 milioi euroko Jasangarritasun Energetikoaren Funts bat du Euskadiko toki-erakundeentzat: 13 milioi 2022ko aurrekontuan, eta 13 milioiko etorkizuneko konpromisoak 2023an, 13 milioi 2024an eta 51 milioi 2025ean.

Osasuna

**OSASUN SAILAK, OSAKIDETZAK, OSALANEK ETA GIZARTE
SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALAK BATERAKO
EKINTZETARAKO HITZARMEN BERRIA SINATU DUTE, AMIANTOAREN
ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEEI EMATEN ZAIEN ARRETA
HOBETZEKO**

Eusko Jaurlaritzak baimena eman du Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Osasun Sailaren, Osakidetzaren eta Osalaren arteko hitzarmen berrirako; hitzarmen horren bidez, protokolo bat ezartzen da, amiantoaren laneko erabileraren ondoriozko patologien eraginpean dauden langileei bai osasun-mailan bai lanbide-mailan eragin zaien kaltea irizpide fakultatibo homogeneoen arabera ebaluatzeko. Hala, aldi baterako laneko ezintasuneko edo laneko ezintasun iraunkorreko egoera posible baten eta, hala badagokio, dagokion ezintasun-mailaren balioespena beharrezkoak diren aurrekari eta irizpen-elementu guztiak kontuan hartuta egin ahalko da.

Hitzarmen berriak orain arte indarrean egon dena ordezkatzeko du, eta alde sinatzaileen arteko baterako jarduketa berriak jasotzen ditu; haiek guztiak pazienteari arreta hobea bermatzera bideratzen dira, bai prebentzioaren eremuan bai eremu klinikoan bai langileen balioespen kliniko-laboralean. Hala, ebaluazio-protokolo horrez gainera, hitzarmenak lantalde bat sortzea aurreikusten du; taldea lau erakundeetako adituek eratuko dute, modu paritarioan. Lantalde hori arduratuko da EAEn bizi diren eta amiantoaren eraginpean dauden langileen segimendua koordinatzeaz.

Osasun Saila da bermatuko duena, bertako profesional mediko ikuskatzaileen bidez, Osakidetzan laneko jarduera garatu bitartean amiantoaren eraginpean egotearen ondorioz patologiak dituzten langileei ematen zaien osasun-asistentziaren inguruan sortutako informazioa eta Osalaren haien lanpostuei lotutako ezaugarri eta arriskuei buruz sortutakoa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari berehala bidaltzen zaiola. Hala, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, behar duen informazio guztia duenean, langile horien ezintasun-egoera eta/edo kontingentziaren zehaztapena modu homogeneoan eta zehatzean ebaluatu ahalko du.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 1,1 MILIOI EUROKO DEIALDIA ONARTU DU EUSKADIKO ZINEMA-ARETOAK SUSTATZEKO, MODERNIZATZEKO ETA DIGITALIZATZEKO

- **Deialdia Europar Batasunak Finantzatutako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskadiko Zinema-aretoen berrikuntzarako, digitalizaziorako eta jasangarritasunerako proiektuak alde batetik, eta bestetik publikoak sortzeko eta fidelizatzeko proiektuak, eta ikus-entzunezko kontsumo-ohitura berrietara egokitzeke proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia. Guztira 1.153.000 euro izango dira.

COVID 19–ak eragindako pandemiak ikus-entzunezkoen kontsumoaren hazkunde nabarmena eragin du plataforma digitalen bidez eta itxieren eragina, aforo mugak eta zinema-aretoen estreinaldi garrantzitsuak atzeratu izanak ahuldu egin ditu zine-aretoetako enpresak. Gaur onartutako dirulaguntzen helburua publikoa aretoetara itzultzea eta ikus-entzunezko kontsumoaren esperientziaren ikuspegi berriak integratu eta errealitate berriei aurre egitea da.

Onuradunak

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako zinema-aretoen edo zinemaguneen ustiapenaren titular diren pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, eta baita beraien arteko edozein motatako elkarte izan daitezke onuradunak. Gainera laguntzen deialdia argitaratu baino gutxienez sei hilabete lehenago egon behar dute jendeari irekita, takilla kontrolatzeko eta diru-sarrerak deklaratzeko sistema batekin eta Zinematografiaren eta Ikusmen Arteen Institutuaren Enpresa Zinematografikoen Administrazio Erregistroan inskribatuta egon behar dira.

Diruz lagunduko diren proiektuek honako xede hauek izango dituzte:

- Digitalizazioa eta zinema-aretoen jarduera nagusian teknologia berriak aplikatzea. Jasotako laguntzaren % 25, gutxienez, konektibitateari, gaitasun digitalari, Interneten erabilerari eta teknologia digitala enpresaren jardueran integratzeari lotutako ardatz honetan erabili beharko da.
- Garapen jasangarriko eta ingurumen-inpaktu positiboko neurriak hartzea.
- Publikoak fidelizatzeko eta erakartzeko sistemak ezartzea.
- Berrikuntza-sistemak ezartzea Europako ekoizpenen programazioan eta zirkulazioan eta Espainiako hizkuntza ofizialetan.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira zinema-aretoen mantentzen lanekin lotutako helburuak dituzten proiektuak.

Dirulaguntzen zenbatekoa gutxienez 24.000 eurokoa izango da pantaila bakarra duten aretoen kasuan eta gehienez 160.000 eurokoa 15 pantaila edo gehiagokoentzat.

Eskabideak aurkezteko epea, martxoaren 5etik aurrera hilabetekoa izango da.

Next Generation EU

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsek. Aparteko aukera ematen dute errekupeazio-plan espezifikoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituratua, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Europako Parlamentuaren Kultura Batzordearen 2021eko otsaileko “*Cultural and creative sectors in post-COVID-19 Europe*” azterlanaren arabera, ikus-entzunezko ustiapenaren negozio-ereduak kolokan jarri ditu COVID-19ak eta inbertsio-proiektu hauen bitartez ikus-entzunezko sektorea sustatu, modernizatu eta digitalizatu nahi da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 464.000 EURO BIDERATUKO DITU ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK SUSTATZERA ETA GARATZERA

Gobernu Kontseiluak 2022an arte plastiko eta ikusizkoen arloan jarduera zehatzak burutzeko dirulaguntzen deialdia onartu du gaur. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 464.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara, aurreko ekitaldian baino 19.000 euro gehiago.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen modalitateak eta jarduerak.

1. **Sustapen-zabalkundearen modalitatea: 55.000 euro** bideratuko dira arlo honetara eta bi motatako ekimenak lagunduko dira:
 - Euskal Herrian bizi diren egileen lanak erakutsi edo zabaltzeko arte zentroetan egiten diren arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzea eta/edo beraietan parte hartzea (jaialdiak, erakusketak, lehiaketak,...).
 - Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren arte garaikidearen gaineko sentsibilizazio-ekimenak laguntzea (batzarrak, jardunaldiak, kongresuak, lantegiak, hitzaldiak...).
2. **Argitalpen modalitatea: 135.000 euro** bideratuko dira euskarri desberdinak erabiliz egindako publikazioak egitera, beraien xedea Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta beraien lana sustatzea bada.
3. **Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea:** arte plastiko eta ikusizkoen sorkuntza ekoizpenaren eremuan proiektuak egitea: arte lana ekoiztea eta ikertzea. **274.000 euroko** laguntza emango da.

Diruz lagunduko diren jarduerak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta abenduaren 31 baino lehen bukatu beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 5etik aurrera hilabetekoa izango da.

lazko ekitaldian guztira 59 proiektu lagundu ziren diruz: 40 lagundu ziren sorkuntza ekoizpenaren modalitatean; 14 argitalpenen modalitatean eta 5 sustapen-zabalkundearen modalitatean. Onuradunek 3.800 eta 12.500 euro arteko dirulaguntzak jaso zituzten.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ARLOKO PUBLIKO DESBERDINAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ONARTU DITU EUSKO JAURLARITZAK

Gobernu Kontseiluak 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kultura arloko ikuslegoak garatzeko proiektuak eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 200.000 euro bideratuko ditu laguntza hauetara, 100.000 euro aurtengo ekitaldirako izango dira eta beste 100.000 euro 2023ko ekitaldirako.

Dirulaguntzen helburua kultura publikoak dibertsifikatzea eta zabaltzea da, baita parte hartze kulturala hobetzea ere. Izan ere kultura publikoen garapenak publikoekin harremanetan jartzeko modu berriak aurreikusten ditu, bai sorkuntzaren eta publikoen artean, baita praktika aktiboan ere.

Honako hauek dira diruz lagunduko daitezkeen proiektuak:

- Publikoak dibertsifikatzekoak: interesik gabeko publikoengana bideratutakoak dira, eta hezkuntza-trabak, psikologia-trabak eta gizarte-inguruko trabak gainditzera bideratutakoak.
- Publikoak hedatzekoak: kulturen interesa izanda ere, kultu- jardueretan parte hartzen ez duten publikoei zuzendutako proiektuak edota jarduerak, kultura-jardueretara erakartzeko eta haietarako sarbidea errazteko esku-hartzeak behar dituztenak.
- Parte hartzea areagotzekoak: Kultur jardueretan parte hartzen duten publikoak gero eta fidelagoak izan daitezen, partaidetza-maila eta inplikazio-maila handiago lortzera bideratutako proiektu eta jarduerak.

Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean, herritarrei irekiak izan beharko dira, onartutako aurrekontuaren %20 gutxienez autofinantzatua izatea eta euskara izan behar dute komunikazio hizkuntzaren %50 gutxienez. Diruz lagunduko diren proiektuek 25.000 eta 40.000 euro arteko dirulaguntza jasoko dute gehienez.

Interesa dutenek martxoaren 1etik aurrera hilabeteko epea izango dute eskariak aurkezteko.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UN PROGRAMA DE SUBVENCIONES PARA PROMOVER LA DIVULGACIÓN SOCIAL DE LA AGENDA 2030 Y LOS OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

- **La convocatoria para 2022 del Programa *Bonos Agenda 2030* será de 500.000 euros y se dirige a entidades de la red asociativa vasca**
- **Ofrece la posibilidad de promover actuaciones de pequeña escala a asociaciones de ámbito sectorial o comarcal, local y de barrio**
- **El objetivo es favorecer la multiplicación de iniciativas divulgativas, educativas, formativas o de participación ciudadana**
- **Con el mismo fin, en este momento, se está preparando un amplio programa de formación divulgativa sobre Agenda 2030 para esta primavera**

El Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030 constituye el plan de trabajo de Legislatura de la Secretaría General de Transición Social y Agenda 2030 en lo que a impulso de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) se refiere.

Este programa incluye en su diagnóstico la constatación de un significativo grado de desconocimiento social sobre lo que la Agenda 2030 es y representa. Por este motivo, el primero de los cuatro ejes del plan del Gobierno Vasco para esta legislatura está centrado en la divulgación de la Agenda 2030. Los objetivos de este eje de actuación son los siguientes:

- lograr un mayor conocimiento social sobre el significado, proyección e importancia de la Agenda 2030;
- ofrecer cauces de diálogo, participación e implicación social en relación con los Objetivos de Desarrollo Sostenible;
- reforzar las herramientas e iniciativas educativas orientadas a desarrollar una pedagogía de desarrollo humano y sostenible, y de los principios y valores del Contrato Social Agenda 2030 Euskadi;
- y apoyar herramientas formativas para la implementación de los ODS en todos los ámbitos de actuación institucional, sectorial u organizacional.

En este marco, una de las actuaciones previstas es la puesta en marcha del programa de subvenciones *Bonos Agenda 2030* por un importe total de 500.000 euros. El Decreto que regula estas ayudas ha sido aprobado hoy en el Consejo de Gobierno. La resolución con la convocatoria se aprobará las

próximas semanas y, a partir de su publicación, se abrirá el plazo de un mes para la presentación de solicitudes.

Esta convocatoria de subvenciones se orienta en concreto a promover tanto acciones de divulgación y conocimiento social de la Agenda 2030 como iniciativas de participación ciudadana sobre su contenido, apoyando a entidades de la red asociativa vasca para la dinamización de las mismas.

El Programa persigue favorecer la multiplicación de iniciativas divulgativas, educativas, formativas o de participación ciudadana, ofreciendo la posibilidad de promover actuaciones de pequeña escala a asociaciones de ámbito municipal o sectorial, que puedan desarrollar iniciativas en el marco comarcal, local o de barrio.

Con esta finalidad, estas subvenciones tendrán un importe máximo de 5.000 euros por cada iniciativa y de 25.000 euros como máximo por la suma de diferentes iniciativas impulsada por una misma entidad. En definitiva, el Programa de Bonos Agenda 2030 persigue un efecto multiplicador en la difusión, conocimiento y adhesión a los ODS y la colaboración transversal en el compromiso de su promoción.

Adicionalmente y con el mismo objetivo de divulgación esta Secretaría General ha diseñado un programa formativo para 2022 que tiene tres líneas: (1) cursos de formación de formadores de 10 horas, (2) cursos de formación divulgativa de 7 horas, y (3) y cursos de formación sectorial de formato horario diverso, según las necesidades. La primera edición de este programa se pondrá en marcha esta primavera.

A través de este programa de formación se pondrá a disposición de entidades y personas cursos de formación divulgativa sobre Agenda 2030. El curso se focalizará en aportar información clara, sintética y orientada, no solo a la comprensión teórica de la Agenda sino, muy especialmente, a su plasmación práctica.

Economía y Hacienda

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL PROGRAMA ESTADÍSTICO 2022 CON 210 ACTUACIONES Y UN COSTE DE 21 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, martes, el decreto por el que se autoriza el Programa Estadístico Anual 2022 de la C.A. de Euskadi, en el que se plantean 210 operaciones estadísticas, una menos que el año anterior, con un coste de 21 millones de euros.

Este programa incluye todos los trabajos y actividades de naturaleza estadística que llevará a cabo la Organización Estadística Vasca (Eustat y Órganos Estadísticos de los Departamentos del Gobierno Vasco) a lo largo de este año. Se desarrollan así las actuaciones previstas en el actual plan en vigor, el Plan Vasco de Estadística 2019-2022 aprobado por Ley en el Parlamento Vasco en junio de 2019.

La estadística oficial es imprescindible de cara a conocer la realidad socio-económica, más si cabe en estos momentos de crisis. Los resultados que se obtienen con ella son fundamentales al incidir de forma directa en la toma de decisiones, tanto en el sector público como en el privado.

El coste total del Programa 2022 es de 21 millones de euros y Eustat soporta el mayor gasto, un 74% del coste total, seguido del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente con un 6,6% y del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes con un 4,8%.

De las 210 operaciones estadísticas contempladas, Eustat es responsable de 114, mientras que el resto (96) se distribuye de la siguiente manera atendiendo a cada departamento:

- Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente: 31 operaciones
- Planificación Territorial, Vivienda y Transportes: 13 operaciones
- Igualdad, Justicia y Políticas Sociales: 10 operaciones
- Cultura y Política Lingüística: 9 operaciones
- Salud: 8 operaciones
- Trabajo y Empleo: 6 operaciones
- Gobernanza Pública y Autogobierno: 6 operaciones
- Turismo, Comercio y Consumo: 5 operaciones
- Economía y Hacienda: 4 operaciones
- Seguridad: 4 operaciones

Aparecen también como participantes las tres Diputaciones Forales.

Por áreas temáticas, la de más coste es Demografía y hábitos sociales que supone el 13,2% del Programa 2022, seguido de Infraestructura estadística con el 11,8% y de las Cuentas Económicas con el 11,3%.

Por periodicidad de difusión, 170 operaciones estadísticas son estructurales- con una periodicidad anual o superior, de las cuales 95 son anuales-, 25 son coyunturales -periodicidad de difusión inferior al anual- y 15 son ocasionales o irregulares.

Asimismo, cabe destacar que también se utiliza como **fuentes de datos la información administrativa o fiscal** en 70 operaciones estadísticas y en 50 más se incorpora como información auxiliar o mixta como fuente.

Economía y Hacienda

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA AUMENTAR EN 10M€ LOS COMPROMISOS FUTUROS DEL IVF PARA PROYECTOS DE SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy aumentar los compromisos futuros del Instituto Vasco de Finanzas (IVF) en 10 millones de euros en la anualidad 2025 para la concesión de préstamos para proyectos de sostenibilidad energética. En consecuencia, el presupuesto de este ente público se modificará en esos términos.

Actualmente, IVF cuenta con un Fondo de Sostenibilidad Energética para las entidades locales de Euskadi dotado de 90 millones de euros: 13 millones en el presupuesto 2022 y compromisos futuros por 13 millones en 2023, 13 millones en 2024 y 51 millones en 2025.

Salud

DEPARTAMENTO DE SALUD, OSAKIDETZA, OSALAN E INSS FIRMAN UN NUEVO CONVENIO DE ACCIONES CONJUNTAS PARA MEJORAR LA ATENCIÓN A LAS Y LOS TRABAJADORES AFECTADOS POR AMIANTO

El Gobierno Vasco ha dado luz verde al nuevo convenio entre el Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS), el Departamento de Salud, Osakidetza y Osalan, que establece un protocolo específico para evaluar con criterios facultativos homogéneos el perjuicio ocasionado, tanto en términos de salud como a nivel profesional, de las y los trabajadores afectados de patologías derivadas del uso laboral del amianto. De ese modo, la valoración de una posible situación de incapacidad laboral temporal y/o permanente y, en su caso, del grado correspondiente de incapacidad, podrá realizarse con todos los antecedentes y elementos de juicio necesarios.

El nuevo convenio sustituye al vigente hasta ahora, incorporando nuevas actuaciones conjuntas entre las instancias firmantes, todas ellas dirigidas a garantizar una mejor atención al paciente, tanto en el campo de la prevención, como en el clínico o en el de la valoración clínico-laboral de las y los trabajadores.

Así, además del mencionado protocolo de evaluación, el convenio prevé la creación de un grupo de trabajo integrado paritariamente por personas expertas de las cuatro entidades, que se encargará de coordinar el seguimiento de las y los trabajadores expuestos a amianto residentes en Euskadi.

El Departamento de Salud, a través de sus profesionales médicos inspectores, es el garante de que la información generada en Osakidetza en relación con la asistencia sanitaria dispensada a las y los trabajadores que presenten patologías derivadas de la exposición al amianto en el desarrollo de su actividad laboral, y en Osalan respecto a las características y riesgos asociados a sus puestos de trabajo, sea remitida de forma ágil al Instituto Nacional de la Seguridad Social para que éste, disponiendo de toda la información necesaria, pueda evaluar la situación de incapacidad y/o la determinación de contingencia de dichos trabajadores de forma homogénea y precisa.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA CONVOCATORIA DE 1,1 MILLONES DE EUROS PARA EL FOMENTO, LA MODERNIZACIÓN Y LA DIGITALIZACIÓN DE LAS SALAS DE CINE DE EUSKADI

- **La convocatoria forma parte del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia Next Generation EU financiado por la Unión Europea**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una convocatoria para financiar proyectos de innovación, digitalización y sostenibilidad, así como de creación y fidelización de públicos, y adaptación de hábitos de consumo audiovisual en las salas de exhibición cinematográfica de Euskadi. En total serán 1.153.000 euros.

La pandemia provocada por la COVID ha provocado un notable crecimiento del consumo audiovisual a través de plataformas digitales y el impacto de los cierres, las limitaciones de aforo y el retraso de los estrenos importantes en las salas de cine han debilitado a las empresas del sector. Las subvenciones aprobadas hoy tienen como objetivo devolver al público a las salas e integrar nuevos enfoques de la experiencia de consumo audiovisual, así como hacer frente a nuevas realidades.

Empresas beneficiarias

Podrán acceder a la convocatoria aprobada hoy todas aquellas personas físicas o jurídicas privadas titulares de la explotación de salas de exhibición cinematográfica o de complejos cinematográficos, así como agrupaciones de las mismas, ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Además, las salas de cine deberán estar abiertas al público desde al menos seis meses antes de la publicación de la convocatoria aprobada hoy, con un sistema de taquilla y declaración de ingresos, así como estar inscritas en el Registro Administrativo de Empresas Cinematográficas del Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales.

Los proyectos a los que van dirigidas estas ayudas tendrán las siguientes finalidades:

- Digitalización y aplicación de nuevas tecnologías a la actividad principal de las salas de exhibición. Al menos un 25% de la ayuda recibida deberá emplearse en este eje vinculado a cuestiones de conectividad, capacitación digital y uso de internet e integración de la tecnología digital a la actividad de la empresa.
- Adopción de medidas de desarrollo sostenible e impacto medioambiental positivo.
- Implantación de sistemas de fidelización y captación de públicos.

- Implantación de sistemas de innovación en la programación y circulación de producciones europeas y en lenguas oficiales de España.

No se incluyen en esta convocatoria los proyectos cuya finalidad esté relacionada con conceptos de mantenimiento de salas de cine.

La cuantía máxima de estas subvenciones oscilará entre los 24.000 euros para las salas con una única pantalla y los 160.000 euros para las salas de 15 o más pantallas.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del 5 de marzo.

Next Generation UE

Los fondos Next Generation EU tienen el objetivo de paliar los daños causados por la Covid-19, proporcionan una ocasión extraordinaria para desplegar planes específicos de recuperación y contrarrestar el impacto de la pandemia sobre la inversión y la actividad económica. Las medidas para alcanzar este objetivo se estructuran en seis pilares, entre los que se encuentran la transición ecológica, la transformación digital y un modelo de crecimiento inteligente, sostenible e integrador que incluye: cohesión económica, empleo, productividad, competitividad, investigación, desarrollo e innovación.

Según el estudio del Comité de Cultura del Parlamento Europeo “*Cultural and creative sectors in post-COVID-19 Europe*” de febrero de 2021, la crisis de la COVID-19 ha desafiado los modelos de negocio de la explotación audiovisual y con estos proyectos de inversión se pretende impulsar, modernizar y digitalizar el sector audiovisual.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA DESTINARÁ 464.000 EUROS A LA PROMOCIÓN Y DESARROLLO DE LAS ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de subvenciones para la realización de actividades concretas en el ámbito de las artes plásticas y visuales en el año 2022. El Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 464.000 euros a esta convocatoria, 19.000 euros más que en el ejercicio anterior.

Las modalidades y actividades subvencionables son las siguientes:

1. **Modalidad de promoción-difusión:** se destinarán **55.000 euros** a este ámbito y se apoyarán dos tipos de iniciativas.
 - Organización y/o participación en eventos o exposiciones de arte contemporáneo realizados en centros de arte para la exhibición o difusión de obras de autores residentes en el País Vasco (festivales, exposiciones, certámenes, ...).
 - Apoyo a iniciativas de sensibilización sobre el arte contemporáneo que se realicen en la Comunidad Autónoma de Euskadi (congresos, jornadas, congresos, talleres, conferencias...).
2. **Modalidad de publicaciones:** se destinarán **135.000 euros** para la realización de publicaciones en distintos soportes cuyo objeto sea la difusión del arte contemporáneo que se desarrolla en el País Vasco, así como la promoción de los y las artistas y su obra.
3. **Modalidad de creación-producción:** se destinarán **274.000 euros** a la realización de proyectos en el campo de la creación-producción plástica y visual: producción de obra artística e investigación.

Las actividades subvencionables deberán haberse desarrollado a partir del 1 de enero de 2022 y estar finalizadas el 31 de diciembre de 2022. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del 5 de marzo.

En el ejercicio pasado se subvencionaron un total de 59 proyectos: 40 en la modalidad de creación-producción; 14 en la modalidad de publicaciones y 5 en la modalidad de promoción-difusión. Los proyectos seleccionados recibieron subvenciones de entre 3.800 y 12.500 euros.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LAS SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE DIFERENTES PÚBLICOS CULTURALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado la convocatoria de subvenciones para la realización de proyectos y actividades dirigidas al desarrollo de públicos culturales en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante el año 2022. El Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 200.000 euros a estas ayudas, 100.000 euros al presente ejercicio y 100.000 euros al ejercicio 2023.

El objeto de las subvenciones es la diversificación y ampliación de públicos culturales, así como la mejora de la participación cultural. De hecho, el desarrollo de públicos culturales contempla nuevos modos de relación con los públicos, tanto entre la creación y los públicos como en la práctica activa.

Los proyectos subvencionables son los siguientes:

- Diversificación de públicos: proyectos y/o actividades dirigidas a públicos desinteresados y que requieren intervenciones dirigidas a superar las barreras educativas, psicológicas y/o del entorno social.
- Ampliación de públicos: proyectos y/o actividades dirigidas a públicos interesados en la cultura pero que no participan en actividades culturales y que requieren de intervenciones para atraer y facilitar el acceso a las actividades culturales.
- Profundizar en la participación: proyectos y/o actividades dirigidas a la fidelización de los públicos culturales ya existentes para que incrementen tanto su nivel de participación como su nivel de implicación.

Los proyectos deberán desarrollarse en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre el 1 de enero de 2022 y el 30 de noviembre de 2023, ser abiertos a la ciudadanía, tener autofinanciado al menos el 20% del presupuesto aprobado y utilizar el euskera como lengua vehicular de las actividades como mínimo en un 50 %. Los proyectos subvencionables tendrán una subvención máxima de entre 25.000 y 40.000 euros.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de un mes a partir del 1 de marzo.